

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako nekazariak eta abeltzainek 2011ko NPBren laguntzetatik 46 milioi euroren aurrerakina jasoko dute urrian

Nafarroako Gobernuak Europar Batasunaren diru-laguntza horiek kobratzeko izapideak bizkortu ditu

Viernes, 09 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuak 2011ko Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) laguntzen kasuan kasuko zenbatekoak ordainduko ditu urriaren erdialdean; guztira 46.222.439 euro izango dira.

Zenbateko hori aurtengo NPBren laguntza osoaren % 50eko aurrerakina da, eta 18.000 nekazari eta abeltzain nafarrek aterako die etekina. 2011ko kanpainan, Nafarroako Gobernuak nekazaritza errentetarako Europak ematen dituen 100 milioi euroko laguntzak kudeatuko ditu.

Nafarroako Gobernuak 2009tik aurreratu du laguntza horien ordainketa, Europar Batasunak agindu duenaren arabera. Aurten, Europar Batasunak ([2011ko abuztuaren 5eko Batzordearen 784/2011 zenbakiko Betearazteko Araudia](#)) bereziki komenigarritzat jo du laguntzen ordainketa aurreratzea, izan ere, "2011n, Europan, baldintza meteorologikoak aurkakoak izan dira: negua oso gogorra izan da eta udaberria berandu iritsi da, muturreko lehortea eta tenperatura altuak ere izan dira, eta horiek kalte larriak eragin dituzte uztan eta bazkaren ekoizpenean".

Nekazariak jasoko dituzten aurrerakinak labore azalera guztietarako laguntzen % 50 dira, guztira 43.679.555 milioi euro. Ordainketa bakarreko erregimeneko aurrerakinek Nafarroako ustiategien 15.853 titularri emango dizkie onurak; guztira 43.140.225 euro dira. Gainera, arrozaren (116 titular eta 376.842 euroren aurrerakina), proteaginosoen (340 titular eta 64.488 euroren aurrerakina), azaldun fruituen (952 titular eta 93.500 euroren aurrerakina) laborantzarako eta leguminosen kalitaterako (13 titular eta 4.500 euro) laguntzak daude.

Abeltzaintzat 2.542.884 euro aurreratu dira, hau da, ildo batzuetan aurtengo urterako laguntzen % 50 eta beste ildo batzuetan % 80, aurten abeltzaintzaren sektoreak jasan dituen zailtasun bereziak direla eta. Zehazki, % 50eko aurrerakina honako laguntza ildoengatik jasoko dute: esnekien sektorerako osagarriak direnek (Nafarroako ustiategietako 249 titular eta laguntzeko 250.178 euroren aurrerakina), kaltetutako guneetako esnekien sektoreak (218 titular eta 387.454 euro) eta ardien eta ahuntzen ganadutegiek, ustiategi horien kalteberatasun espezifikogatik (283 titular eta 609.113 euro).

Laguntzen % 80ko aurrerakina jasoko dute ondorengoengatik: Behin

ume-hazleen hazkuntzagatiko hobaria (Nafarroako laguntzen 406 titular eta 1.032.158 euro laguntzen aurrerakina) eta behiak hiltzeagatiko hobaria (1.056 titular eta 263.981 euro).